Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko apirilaren 21a, osteguna — 74 — Jueves, a 21 de abril de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Iragarkia*

Zarauzko Udaleko Udalbatzarrak, 2022ko martxoaren 31n egindako bilkuran 2022. urtean parekidetasun departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak onartu ditu eta testu osoa argitara ematen da, bere ezagutza orokorrerako.

Erabakia behin betiko da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka errekurtso hauek aurkeztu ahal izango dira:

— Berraztertzeko errekurtsoa: aukerazkoa, erabakia hartu duen organoari, hilabeteko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekurtsoa aurkeztu eta hilabete igarota ebazpena jakinarazi ez bada, orduan errekurtsoa onartu ez dela ulertuko da. Edota, zuzenean,

— Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa: Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

*Aplikatzekoa den legeria:* urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (123. eta 124. artikuluak); eta uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena (46. artikulua).

*2022. urtean Parekidetasun Departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak.*

*1. Helburua.*

Oinarri hauen helburua da Parekidetasun Departamentuak era estrukturalean garatzen dituen jarduera, programa eta proiektuen osagarri direnak egiten dituzten pertsona fisikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo elkarteei norgehiagoka araubidez emango zaizkien dirulaguntzen prozedura arautzea, bikoiztasunak berariaz saihestuz. Adibidez, honako hauek:

— Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatu eta bultzatzea eta haien arteko desberdintasunak gainditzea.

— Zarauzko emakumeen asoziazionismoa sustatzea eta sare instituzional, sozial eta kulturalean haien parte-hartzea indartzea.

— Zarauzko herritarrak eskubide eta aukera berdintasunaren arloan sentsibilizatzea eta kontzientziatzea.

— Emakumeen parte-hartze aktiboa nahiz emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatzeko jarduerak sustatzen dituzten erakundeen sorrera bultzatzea.

— Ikerketa, sentsibilizazio eta dibulgazioko jarduerak egitea, aukera berdintasunaren inguruan eta emakumeen eskubideen sustapen eta defentsaren alorrean.

— Emakumeen aurkako biolentzia prebenitzeko eta desagerrarazteko, biktimen eskubideak defendatzeko eta horien sus-

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 31 de marzo de 2022, ha aprobado las bases específicas para el otorgamiento de subvenciones del departamento de igualdad –año 2022– cuyo texto íntegro se publica para general conocimiento.

Contra el mencionado acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, se podrán interponer los siguientes recursos:

— Recurso de reposición, con carácter potestativo, ante el mismo órgano que ha dictado el acto, en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. El recurso se entenderá desestimado si transcurre un mes desde su interposición, sin que se notificara la resolución. O bien directamente,

— Recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa; todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

*Legislación aplicable:* artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

*Bases específicas para el otorgamiento de subvenciones del Departamento de Igualdad –año 2022–.*

*1. Objeto.*

Es objeto de estas bases regular la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a personas físicas y entidades o asociaciones sin ánimo de lucro que realicen actividades, programas y proyectos específicos que complementen los desarrollados de forma estructurada por el Departamento de Igualdad, evitando expresamente la duplicidad, y en concreto los siguientes:

— Promover y fomentar la igualdad de oportunidades y superar las desigualdades existentes entre mujeres y hombres.

— Potenciar el asociacionismo de las mujeres de Zarautz y promover su participación en el entramado institucional, social y cultural.

— Sensibilizar y concienciar a la ciudadanía de Zarautz sobre la igualdad de derechos y oportunidades.

— Promover la creación de asociaciones que favorezcan la participación activa de las mujeres, así como la realización de actividades de promoción de la igualdad de mujeres y hombres.

— Actividades de investigación, sensibilización y divulgación en materia de igualdad de oportunidades y promoción y defensa de los derechos de las mujeres.

— Actividades dirigidas a prevenir y eliminar la violencia que se ejerce contra las mujeres, a defender los derechos de las víc-

EK\CV GAO-I-2022-02221

perraldi pertsonala eta normalizazio soziala bultzatzeko jarduerak egitea. Udalak sustatzen dituen jardueren osagarri izango dira jarduera horiek.

— Erantzukizun pertsonalen, familiarren eta profesionalen arteko kontziliazioaren beharraz sentsibilizatzeko eta kontziliazio-neurriak sustatzeko jarduerak egitea.

— Emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera-berdintasuna bultzatzeko beste jarduera batzuk egitea.

Deskribatutako jarduerak eta/edo ekintzak diruz lagundu ahal izateko, aurkeztutako proiektua Zarauzko herrian garatu eta egin beharko dute eta ekintzok ez zaizkie elkarte edo erakunde sustatzailearen kideei bakarrik zuzenduko.

Deialdiaren urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindako jarduerak lagunduko dira diruz.

*2. Onuradunak.*

Dirulaguntza hauek pertsona fisikoek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek eskatu ahal izango dituzte; legearen arabera eratuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egongo dira, beren IFZ izango dute, eta Zarautzen edukiko dute beren egoitza edo ordezkaritza iraunkorra eta beren jarduera Zarauzko udalerrian garatuko dute.

Salbuespen gisa, udalerriarentzat interesgarriak diren jarduerak ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkaritza ofizialik ez izan.

*3. Onuradunak izateko debekua.*

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

— 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.

— 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

— Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

— Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

— Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

Erakundeak, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezake onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez dagoela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordez, erantzukizunpeko aitorpenarenak aurkez daitezke.

*4. Diruz laguntzeko gastuak.*

Gastu hauek dira diruz laguntzeko modukoak: diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak, eta deialdian jarritako epean egiten direnak.

timas y a promover su recuperación personal y su normalización social. Estas actividades deberán ser complementarias a las promovidas por el Ayuntamiento.

— Actividades dirigidas a sensibilizar y promover medidas de conciliación de responsabilidades personales, familiares y profesionales.

— Otras encaminadas al fomento de la igualdad de derechos y oportunidades de mujeres y hombres.

Para que las actuaciones y/o actividades anteriormente descritas sean subvencionables deberán desarrollarse y ejecutarse en el municipio de Zarautz y no podrán ser de acceso restringido a las personas que forman parte de la asociación o entidad promotora.

Se subvencionarán actuaciones ejecutadas desde el 1 de enero al 31 de diciembre del año de la convocatoria.

*2. Sujetos beneficiarios.*

Podrán solicitar las citadas subvenciones las asociaciones sin ánimo de lucro, legalmente constituidas e inscritas en los registros correspondientes, que dispongan del correspondiente NIF y que tengan su sede o delegación permanente y desarrollen su actividad en el municipio de Zarautz.

Podrán también ser objeto de ayudas con carácter excepcional aquellas actividades consideradas de interés para el municipio, aunque la asociación o institución solicitante no tenga sede oficial en Zarautz.

*3. Prohibiciones para beneficiarse de la subvención.*

No se podrá beneficiar de las subvenciones reguladas en estas bases cualquier entidad que esté en alguna de las siguientes circunstancias:

— Alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Personas físicas o jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por delito sexual, de acuerdo a lo establecido por la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio.

— Personas físicas o jurídicas que no cumplen con los requisitos establecidos por la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

— Personas físicas o jurídicas con objetivos, sistemas de acceso, funcionamiento, trayectoria, práctica, organización o estatutos contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres, o que discriminan por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual (artículo 38 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

— Personas físicas y jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por haber vulnerado el derecho a la igualdad y el derecho a no ser discriminado o discriminada por razón de sexo (artículo 38 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

La justificación por parte de la entidad de no estar incursa en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria podrá realizarse mediante testimonio judicial o certificación acreditativa, según los casos, y cuando dichos documentos no puedan ser expedidos, podrán ser sustituidos por una declaración responsable.

*4. Gastos subvencionables.*

Se consideran gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en la convocatoria.

EK\CV GAO-I-2022-02221

Dirulaguntzaren deialdian zehaztutako justifikazio-epea bukatu aurretik egindako ordainketa hartuko da gastutzat.

Diruz lagun daitezkeen gastuen erosketa-prezioa inoiz ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa.

*5. Eskaerak.*

Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eskaerak: Etxezabala - Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ).

Eskaerak aurkezteko epea urteko deialdian jarriko da.

Parekidetasun Departamentuaren dirulaguntzen urteko deialdian zehazten den eskabide ofizialaren ereduko atal guztiak betez egin beharko dira eskaerak. Deialdian eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da eskaerarekin batera eta derrigorrez:

— Erakunde eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren NANaren kopia.

— Entitate eskatzailearen IFZren kopia, hala badagokio.

— Diruz lagundua izan nahi duen proiektuaren, jardueraren edo programaren jatorrizkoa, entitate eskatzailearen organo eskudunak onartutakoa.

— Programaren gastuen (kontzeptua eta zenbatekoak) eta sarreren (jatorria eta zenbatekoa) aurrekontua.

— Erantzukizunpeko adierazpena, beste departamentu, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, emanda daudenak jasotzen dituena.

— Jardueraren hedapenean aurreikusitako euskararen tratamendua, dagokion inprimakia beteta.

— Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalekoak egunean dituela, eta onuradun izateko Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako inolako debekurik ez daukatelaren erantzukizunpeko adierazpena.

Pertsona edo entitate eskatzaileari interesgarri iruditzen zaion dokumentazioarekin osatu ahal izango du dokumentazio hori.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, ez da beharrezkoa izango interesdunak baimena ematea laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzeko; eta administrazioak, bere eskumenen barruan, datuen zehaztasuna frogatzeko eta bere esku dauden edo beste edozeinek egin dituen dokumentuak kontsultatzeko eta biltzeko behar diren egiaztapenak egin ahalko ditu.

Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriek akatsen bat badute edo osatu gabe baldin badaude, erakunde eskatzaileari hamar egun baliodunеko epea emango zaio akatsok zuzentzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan jarritakoaren arabera; eta gainera adieraziko zaio, hala egiten ez badu, bere eskaera bertan behera uzten duela pentsatuko dela, lege horrek berak 21 artikuluan jasotakoaren arabera.

*6. Elkarte onuradunen betebeharrak.*

Hauek dira erakunde onuradunaren betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain:

— Dirulaguntzaren oinarrian dagoen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izango du.

Se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación determinado en la convocatoria.

En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

*5. Solicitudes.*

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento: Etxezabala - Servicio Atención Ciudadana (SAC).

El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

Las solicitudes deberán formalizarse cumplimentando en todos sus apartados el modelo de instancia oficial que se determine en la convocatoria anual de subvenciones del Departamento de Igualdad. Se acompañará a la solicitud la documentación requerida en la convocatoria y, en todo caso:

— Fotocopia del D.N.I. de la persona responsable o representante de la entidad solicitante.

— Fotocopia, en su caso, del NIF de la entidad solicitante.

— Original del proyecto, actividad o programa que se pretende sea subvencionado, aprobado por el órgano competente de la entidad solicitante.

— Presupuesto de gastos (concepto e importes) y de ingresos (procedencia e importe) del programa.

— Declaración responsable en la que se hagan constar las solicitudes de subvención formuladas ante otros departamentos, instituciones, organismos, etc., o, en su caso, de las que estuvieran otorgadas.

— Tratamiento del euskera previsto en la difusión de la actividad cumplimentando el correspondiente impreso.

— Declaración responsable de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Zarautz y que no se encuentran incursos en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de entidad beneficiaria señaladas en el artículo 13 de la Ley general de Subvenciones.

Esta documentación podrá ser complementada por cuanta otra que considere de interés la persona o entidad solicitante.

En aplicación de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de la disposición adicional octava de la Ley 3/2018, 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y, en general, de la previsión contenida en el artículo 28 de la Ley 39/2015, no será preciso el consentimiento de la persona interesada para la gestión de ayudas y subvenciones y la administración podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias, las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos y consultar y recabar documentos que se encuentren en su poder o hayan sido elaborados por cualquier otra administración.

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21 de ese mismo texto legal.

*6. Obligaciones que deben cumplir las asociaciones beneficiarias.*

Son obligaciones de la entidad beneficiaria, además de las recogidas en los correspondientes anexos:

— Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

— Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatuko du betebeharrak eta baldintzak bete dituela, jarduera egin duela eta bete dituela dirulaguntza emateko edo gozatzeko bete beharreko helburuak.

— Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortuko ditu.

— Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartu eta haiek egiten lagunduko du, indarrean dagoen araudiaren arabera; era berean, kontrol-organoek egindako egiaztapen eta kontrol finantzieroko beste edozein jarduera ere onartu eta egiten lagunduko du; eta aurreko jarduerak egiteko eskatzen zaion informazio guztia emango du.

— Emakidaren ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatuko du.

Erakunde eskatzaileak bere eskaeran baimena sartu ahal izango du, organo emaileak ziurtagiri telematikoen bidez lor dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena; eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, Zarauzko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat egingo du.

— Kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatutako baldintzetan.

— Hartutako fondoen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, lau urteko epean gordeko ditu, egiaztapen- eta kontrol-jardueren aztergai izan daitezkeelako.

— Organo emaileari jakinaraziko dio, hala badagokio, nazioko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

— Dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraziko du.

— Jasotako fondoak itzuliko ditu, ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan.

— Diruz lagundutako jarduerararen zabalkunde-ekintzetan, Zarauzko Udalak diruz lagundutakoa dela adierazi beharko da.

— Jarduera egitean, pertsonen oinarrizko eskubideak eta indarrean dauden legeak errespetatuko dira.

Euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko udal araudiaren arabera, ondorengo irizpideak jartzen dira:

— Diruz lagundutako jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika...) gutxienez euskaraz egingo dira, eta, ele bitan eginez gero, euskarari lehentasuna emanda. Diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta ezagutaraziko da.

— Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

— Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

— Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

— Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y del Ayuntamiento de Zarautz.

La persona o entidad solicitante podrá incluir en la solicitud la autorización para que el órgano concedente obtenga de forma directa la acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social a través de certificados telemáticos, en cuyo caso no deberá aportar las correspondientes certificaciones.

Para la acreditación de la obligación de estar al corriente de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Zarautz y como quiera que el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas reconoce el derecho de los ciudadanos y ciudadanas a no presentar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración, la propia entidad local emitirá certificación, la cual se incorporará al expediente.

— Disponer de libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la entidad beneficiaria en cada caso.

— Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años.

— Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.

— Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

— Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en la ordenanza general.

— En las acciones de difusión de la actividad subvencionada deberá hacerse constar la colaboración, mediante subvención, del Ayuntamiento de Zarautz.

— En el ejercicio de la actividad se observará el debido respeto a los derechos fundamentales de la persona y se respetará la legalidad vigente.

En cumplimiento de la Normativa municipal para la utilización y el fomento del uso del euskara, se establecen los siguientes criterios:

— Se garantizará el uso del euskera en todas las actividades subvencionadas. Las actividades se realizarán en euskera o bilingüe. Los mensajes escritos (carteles, folletos, invitaciones, convocatorias, publicidad...) y las comunicaciones orales (presentaciones, ponentes, música, etc.) se realizarán al menos en euskera y, en el caso de hacerlo en bilingüe, priorizando el euskera. Si la actividad subvencionada se realiza en euskera, se redactará y dará a conocer en euskera.

EK\CV GAO-I-2022-02221

— Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jarduera guztiak euskaraz egingo dira. Euskararen erabilera bermatuko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzerakoan.

— Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzerakoan edo honakoak egiterakoan: bilerak, hitzaldiak, jendaurreko ekitaldiak, idatzizko komunikazioa (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharrak...), megafonia, web-orria, WhatsApp-taldea...

— Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera ondorengo baldintzak jartzen dira:

— Elkartearen estatutuetan, kideak onartzeko prozesuetan eta haren funtzionamenduan ezingo dute diskriminaziorik egin sexua, ideologia, jatorri etnikoa, nazionalitatea edo sexu orientazioagatik.

— Programan edo jardueran genero ikuspegia txertatuko dute, kontuan izanda gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla.

— Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazio barneratzailea erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rolaniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea.

— Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).

— Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izatea.

*7. Prozedura.*

Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokor arautzailean jarritako prozedura jarraituko da dirulaguntzak emateko.

*8. Balorazio irizpideak.*

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

* Proiektua testuinguruan kokatzea eta bere kalitatea: gehienez 50 puntu.

— Aurreanalisia eta proiektuaren beharraren justifikazioa.

— Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna.

— Proiektuaren arduradunen eta/edo betetzaileen espezializazioa eta/edo esperientzia profesionala berdintasunean.

— Programa edo jardueraren helburuak eta edukiak egokiak izatea emakumeen eskubideak defendatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, eta/edo indarkeria sexista ezabatzeko.

* Proiektua berritzailea izatea; sentsibilizazioaren eta/edo prebentzioaren arloan ikuspegi eta/edo estrategia berriak proposatzea: gehienez 10 puntu.

* Proiektuaren kostuaren eta onuradun kopuruaren artean koherentzia izatea: gehienez 5 puntu.

* Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako, ezberdinkeria handiagoko egoeran daudenentzako eta/edo diskrimina-

— Todas las actividades organizadas específicamente para niños y niñas, adolescentes y jóvenes se realizarán exclusivamente en euskera. Se garantizará el uso del euskera en todos los ámbitos, en la difusión y en el desarrollo de la propia actividad.

— La entidad beneficiaria de la subvención preverá el tratamiento lingüístico en la contratación de servicios o en la realización de reuniones, conferencias, actos públicos, comunicación escrita (hojas informativas, carteles, cartas, notas), megafonía, página web, grupo WhatsApp...

— El informe justificativo de la subvención se redactará preferentemente en euskera, sin perjuicio del derecho de las personas interesadas a relacionarse en cualquiera de las dos lenguas oficiales.

En cumplimiento de la Normativa Municipal para fomentar la igualdad entre los hombres y las mujeres:

— No podrán discriminar por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual en los estatutos de la asociación, en el proceso de admisión de sus miembros, ni en su funcionamiento.

— Deberán incluir la perspectiva de género en el programa o actividad, teniendo en cuenta que las situaciones, condiciones y necesidades de hombres y mujeres son diferentes.

— Deberán utilizar una comunicación no sexista e inclusiva tanto del lenguaje como de las imágenes en todas sus actividades, documentación, publicidad y materiales. Evitar cualquier imagen o estereotipo sexista que discrimine a las mujeres; y fomentar el uso de imágenes que transmitan valores de igualdad, presencia equilibrada de mujeres y hombres, corresponsabilidad y diversidad de roles e identidades de género.

— En la memoria justificativa de la subvención, se especificarán los datos desagregados por sexo (en valores absolutos o porcentajes).

— El evento, actividad o espectáculo organizado, no podrá tener ningún contenido de tipo sexista.

*7. Procedimiento.*

El procedimiento para la concesión de subvenciones serán el establecido en la Ordenanza General del Ayuntamiento de Zarautz.

*8. Criterios de valoración.*

Se seleccionarán las peticiones que serán aprobadas teniendo en cuenta los siguientes criterios y límites de valoración (hasta un máximo de 100 puntos). Aquellos proyectos que no obtengan una puntuación mínima de 50 puntos no serán subvencionables.

* Contextualización y calidad del proyecto: hasta 50 puntos.

— Análisis previo y justificación de la necesidad del proyecto.

— Calidad y viabilidad del mismo.

— Especialización y/o experiencia profesional en igualdad de las personas responsables y/o ejecutoras del proyecto.

— Adecuación de sus objetivos y contenidos a la defensa de los derechos de las mujeres, en la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, y/o en la eliminación de la violencia sexista.

* Carácter innovador del proyecto, propuesta de nuevos enfoques y/o estrategias en el ámbito de la sensibilización y/o de la prevención: hasta 10 puntos.

* Relación y coherencia entre el coste y el número de personas beneficiarias del proyecto: hasta 5 puntos.

* Dirigirse a mujeres con dificultades especiales en condiciones potenciales de mayor desigualdad y/o en situaciones de

EK\CV GAO-I-2022-02221

zio edo bazterkeria egoeran daudenentzako proiektuak izatea (emakume atzerritarrak, zaintzaileak, etxeko langileak, dibertsitate funtzionala dutenak...): gehienez 5 puntu.

* Dirulaguntza jasotzen duten elkarteen ardura-postuetan eta erabakitzeko organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: gehienez 5 puntu.

* Dirulaguntza jasotzen duten elkarteen osaeran emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: gehienez 5 puntu.

* Taldean eta sarean egiten diren proiektuak eta prozesuak izatea, eta esperientzien trukaketa bultzatzea: gehienez 10 puntu.

* Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko edo/eta indarkeria sexista ezabatzeko politiken edo jardueren garapenean egindako ibilbidea, edo/eta Berdintasunerako Udal Kontseiluan aktiboki parte hartzea eta Parekidetasun Departamentuarekin lankidetzan aritzea: gehienez 6 puntu.

* Jarduera euskaraz hutsez gauzatu eta zabaltzea: gehienez 2 puntu.

* Euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzea, bai jardueraren garapenean, bai entitatearen barne funtzionamenduan: gehienez 2 puntu.

*9. Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Dirulaguntza hauen banaketa norgehiagoka araubidez tramitatuko da, deialdi bakoitzean jarriko diren aurrekontu-mugen barruan eta dirulaguntza jasotzeko 50 puntu lortu behar dira gutxienez.

Ezingo da deialdian zehazten dena baino zenbateko handiagoko dirulaguntzarik eman, Legea garatzeko Erregelamenduan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

Baldin aurrekontu-kontsignazio eskuragarriarekin eskatutako zenbatekoen zati bat estaltzeko soilik iristen bada, emandako zenbatekoak proportzionalki banatuko dira, baldintza berdinetan, onartutako dirulaguntza guztien artean.

Emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin.

Erakunde onuradunak jakin bezain laster adierazi beharko du diruz lagundutako jarduera finantzatzeko dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek lortu dituela (zenbatekoa ere bai), eta, nolanahi ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du inoiz gainditu, bakarka zein beste administrazio publikoek xede berarekin emandakoekin batera, diruz lagundutako obra edo jardueraren kostua.

*10. Zuzkidura eta aurrekontu-partida.*

